

AGENDEA

GETXO

Erakusketea: Erakusketa filatelikoa Erromoko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Domekara bitartean joan ahal izango da.

Pelikulea: Umeentzako zinearen denporaldia bihar amaituko da. *Monstruos S.A.* emongo dabe, Algortako Getxo Antzokian, 12:00etan, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerea 1,80 euroan dago.

Jaiak: Isidro Deunaren jaiak Andra Mari auzoan. Gaur arrastian umeentzako jolasak egongo dira elizaren ondoko zelaian, 18:00etatik aurrera. Iluntzeko 22:30ean berbenea hasiko da, eta domeka goizean gastronomiaren ganeko azokea ipiniko dabe. Algortako Bertsolari Eskoleak (ALBE) be jaietan hartuko dau parte. Bertso saioa antolatu dau biharko. Eguerdiko 13:00etan hasiko da, Andra Mari elizaren ondoko zelaian barriro. Hiru bertsolarik jardungo dabe: Gregorio Larrañaga *Mañukortak*, Xabier Paia getxozarrak eta Onintza Enbeitak. Josu Landeta izango da gaijartzailea.

Kontzertua: Andres Isasi Musika Eskolan, biolontxelo emonaldia bertako ikasleen eskutik. Maiatzaren 20an, datorren astelehenean, izango da, arrastiko 20:00etan.

Jaialdia: Aspanovas alkarteak minbizia daukien umeen aldeko jardunaldiak antolatu dauz. Bihar goizean jaialdia egingo dabe Algortako metro geltokiko plazan. Umeentzako tailerrak eta ekitaldiak egingo dabez, eta Herri Krosa be eratu dabe. Horrezaz ganera, eguerditik aurrera Hortzmuga taldeko kideek ikuskizun ederra eskainiko dabe.

Berbaldia: *Factores de formación y propiedades de los suelos de la vertiente cantábrica*, 19:30ean, Itsasganen.

Maiatzaren 20an, datorren astelehenean, izango da berbaldia, Gerardo Besga agronomoa eta Octavio Artieda geologoaren eskutik. Ekitaldi horregaz amaituko dira Basozaleak alkarteak antolatutako jardunaldi botanikoak.

Alkartasuna: Mendebaldeko Saharako umeak udan etxean euki gura dabezan familientzako epea maiatzaren 26ra arte luzatu dau Aftal alkarteak. Izan be, orain arte zazpi ume hartzeko eskaera jaso dabe alkartekoek eta Gizarte Zerbitzuek. 15 ume ekarri gura dabez Getxora uda osoa udalerrian igaro daien, eta horrexegaitik, oraindino 8 familia behar dabez. Beste alde batetik, Aftal alkarteak maiatzaren 26an Getxon egingo dan Ibilaldian gune berezia eukiko dau. Informazinarako telefonoa ondorengoa da: 658 751 319.

Ikastaroak: Getxoko Salerosleen Alkarteak ikastaro barriak ipini dauz martxan. Datorren astelehenean eta martitzenean sukaldariei zuzenduriko ikastaroa izango da, eta 22an beste bat egingo dabe, horreek guztiok elikagaiakaz behar egiten ikasteko. Informazinarako telefonoa: 94 430 55 00.

LEIOA

Gore Astea: Forensick, Baalphegor eta beste talde bat kontzertuan, iluntzeko 20:00etan, Udondo gaztetxean. Bihar *Toxic Avenger 2* izeneko pelikulea emongo dabe ordu berean.

Erakusketea: Maskaradearen ganeko erakusketea, gaur eta bihar Lamiako

auzoko Kultur Etxean. Gaur 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00etara eta bihar goizean bakarrik, 15:00ak arte.

Sahara: FATH Leioako Sahararen Aldeko Alkarteak udan Mendebaldeko Saharako umeak etxean hartu gura dabezan familientzako epea zabaldu dau. Informetako telefonoa: 656 735 687.

ERANDIO

Antzerkia: *La Casa de Bernarda Alba* antzezlan agertuko dau Ermuko Izarraitz taldeak gaur, Erandioko Bekoa Ikastetxean. Antzezlan 19:30ean hasiko da, eta Algortako Antzerki Eskoleak eraturako Emakumeen Bideak zikloaren barruan antolatu dabe.

SOPELA

Manifestazinoa: Manifestazinoa antolatu dau Sopelako Gazte Asanbladeak iluntzeko 20:00etarako. Larrabasterratik urtengo dabe, eta udaletxeraino egingo dabe ibilbidea. Herriko gaztetxea bota dabela salatzeko eratu dabe.

Ludotekea: Ludotekea, goizeko 10:30etik 13:30era bitartean, kontsumitzailearen bulego zaharrean. Sarrerea doan da.

Zinea: Arrastiko 18:00etan Kultur Etxean. Gaur *Batman* emongo dabe.

URDULIZ

Udalekuak: Urdulizko Elortza ikastetxean egingo dabez aurten Uribe Kostako udalekuak, garagarriaren 1etik 19ra bitartean, Mankomunitadeko Euskera Zerbitzuak antolatuta. 7 eta 13 urte bitarteko umei zuzenduta dago, eta izena emoteko epea bagilaren 6ra arte egongo da zabalik. Informetako: 94 676 26 74 telefonoa eta www.uribekosta.org. helbidea.

Kartel lehiaketea: Urdulizko jaiak iragarteko kartel lehiaketan parte hartzeko epea bagilaren 28ra arte egongo da zabalik. Gura daben pertsona guztiek hartu leikie parte, eta bakotzak kartel bi aurkeztu leikez asko jota. Beharren teknika, gaia eta kolorea libreak dira, eta kartelen neurria 45 bider 60 zentimetrokoa izan behar da, euskarri gogor baten ganean. Beharretan Urdulizko Jaiak Andra Mari 2002 leloa agertu behar da. Argibide gehiago: 94 676 36 31.

BARRIKA

Kontzertua: Ministers taldeak joko dau, gaueko 23:00etan, Golfo Norte tabernan.

GORLIZ

Pelota Partidua: Gorlizko frontoian, Bizkaiko Pelota Txapelketea (Sub.22). Goizeko 10:00etan.

ZAMUDIO

Jaiak: Pazko jaiak ospatuko dabez asteburu honetan Zamudiokoek. Beste hainbat ekitaldiren artean, bihar, iluntzeko 20:30etik aurrera, Zamudioko Abesbatzak kontzertua emongo dau herrian.

MUNGIA

Kontzertua: Alboka taldeak folk kontzertua emongo dau Mugire Txokoan, gaueko 22:30etik aurrera.

LEMOIZ

Azokea: Nekazaritza eta Artisautza Azokea, Armintzan, goizeko 11:00etatik aurrera.

GETXO. Aurkezpena Igeretxan egingo dabe gaur eguerdian



VERONICA MUÑOZ
Joxi Arakana, Patxi Goenaga, Iñaki Zarragoa eta Gotzon Lobera, atzo eginiko aurkezpenean.

Euskerea kalera atara gura dabe Plan Nagusiaren bidez

Herrian gure hizkuntzea bizibarritzeko plana udarako egin gura dabe

Veronica Muñoz |

Udalak, Aldundiak eta Jaurleri-tzak bat egin dabe Euskera Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) Getxon martxan ipinteko asmoz. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskerearen Aholku Batzordeagaz alkarlanean eginiko plana, hain zuzen, udalak garatzen dabilz une honetan. Getxoko Udalak orain gitxi ekin deutso plana diseineteari, eta udarako eginda eukiko dabela itxaroten dabe.

«Euskeraz bizi gura daben herritarrei hori lortzeko preminazkoak diran baliobideak emoteko» ipiniko dabe martxan EBPN, Patxi Goenaga Jaurleri-tzako Kultura Saileko Euskera sailburuordeak atzo eginiko aurkezpenean azaldu ebanez.

Datozan urteotan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko bidean jarraitzeko plana izango da hori, eta oinarritzko tresna lez erabiliko dabe. Iñaki Zarragoa alkateak atzo azaldu ebanez, «agiri zabala izango da, eta ikusten doguzan preminen arabera garatuko dogu». Maila guztietan behar egin gura dabe euskerearen alde, eta helburu hori lortzeko gizarte osoaren laguntzea oinarritzkotzat jo dabe.

Planaren helburu nagusienez, takoen artean administrazioa euskalduntzea dago, Gotzon Lobera Foru Aldundiko Euskera zuzendariaren berbetan, «Udala bide egokia dalako jentearengana heltzeko». Holan, Getxon 5 helburu ipini dabez arlo horretan, tartean herriko administrazioan plana onar-

tzea eta garatzea, Euskera Zerbitzua sendotzea, beharginen artean euskerea sustatzea, eta zerbitzuok eta informazio guztia euskeraz bideratzea.

Gizarte mailan, barriz, hiru helburu nagusi bilatzen dabilz plan barriagaz. Hasteko, «euskerea belaunaldiz belaunaldi eta eten barik igarotea». Bigarrenez, euskaldunei zerbitzu euskaldunak eskaintzea; eta hirugarrenez, komunikabideetan, kulturgintzan eta gizartearen beste hainbat arlotan hizkuntza modu errezean erabilteko tresna egokiak emotea.

Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren ganeko aurkezpene publikoa gaur egingo dabe herriko guztientzat. Eguerdiko 12etan izango da, Algortako Igeretxe hotelean.

Bigarren KZ Gunea zabalduko dabe datorren astelehenean, Algortako Tangora Etxean

KZ Gune barria inaugurau eben atzo goizean Algortako Tangora Etxean. Udalerrian zabaldu daben bigarren gunea da, eta datorren astelehenean ipiniko dabe martxan. Algortako teknologia barriaren ganeko zentro barriak hiru solairu daukaz, eta danetara 20 ordenagailu ipini dabez bertan, teknologia barriak auzoko guztiei heldu eragiteko helburuagaz.

Beheko solairuan herritarren arretarako gunea eta or-

denagailu bi dagoz, ezindu fisiokoek erabili daiezan. Bigarren solairuan ikastaroak eta mintegiak emoteko gelak ipini dabez, eta bertan 9 ordenagailu daukiez.

Bigarren solairuan, 8 ordenagailu ipini dabez, Interneten ibilteko. Goiko solairu horretan begirale bi egongo dira egunero, ordenagailuak erabiltzen dabezan pertsonen laguntzeko.

Astelehenetik barikura za-

balduko dabe Algortako zentroa, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Getxoko lehenengo KZ Gunea Areetan zabaldu eben 2001eko abenduan. Orain arte 27.000 pertsonak erabili dabe zerbitzu hori, arduradunek atzo emondako datuen arabera. Nabarmentzekoa da erabiltzaileen artean emakumeak nagusi dirala, eta batez be 35 urtetik gorako auzokoek erabili dabela zerbitzu barri hori.